



Gaurkuan alkarlanian aztertu eta komentauko dogu antxiñako fotografia. Aspaldikua da, duda barik. Zenbat urte botaten xatzue? Ehundik gora? Baiña zenbat gehixago? Argibidetxo batzuk emungo dotsuegu: **etxe, baserri eta eraikin batzuk zutik jarraitetan daue; beste asko betiko eraitsi eta ezkutau dira.** Argazkixa kalidade onekua ezpada be, ariketa honetarako oso interesantia dala pentsaitten dogu. Erreparau ondo eskiñitako pistairi.

Zutik irauten dauen batzuk: **unibersidade zaharra; agustiñuen etxia; Santa Ana konbentua zana; San Juan kale eta Kale Zaharreko etxe-illarak, nahikua aldatuta, hori bai; Aingeru Guardakua; Etxebarrialde; Goribargoitti; Olalde; Garaiñeko hasierako fabrika; Santa Kataliña; Antzokua eta Urbieta, bestiak beste.**

Bota edota ordezkatu diranak: **sasue bateko ospitala eta abadetxia; Gorriñetxe; Goizeko Izarra; Pilar Enea; kurtiderixia; Goribar Zaharra; Aloña alde eta Ibaiondo, esate baterako**

Eztago, jakiña, tren-estaziñorik; Ibarren ez ezik, Torrealden eta ixa Goribar auzo danian be soruak dira nagusi; kolore argixagua dakoinak gari-saillak izan leike; **ortu batzuk be agiri dira.** Harrezkero, **majo bete xaku inguru horreik lantegiz, kamiñoiz eta bestelako eraikiñez.**

Horrenbestez, eta aurreratu dittugun argibidiei jarraituaz, **animaitten zarai parte hartzera jolas honetan?** Gehixen asmaitten dauenaretzat **sorpresa-sarixa egongo da.** Erantzunak helbide honeittako batera bialdu zeikei: kontzejupetik@onati.eus edota Kontzejupetik aldizkarixa, Bidaurreta Torria, Olakua auzua, 20560 Oñati (Gipuzkua).

J. E.

Zuzenketak: Suerte haundixa eduki dogu argazki zaharren sail honetan orain hurrenguan agertu geben fotografiarekin. Ezezaguntzat jotzen gittuan bi gazte identifikatu ahal izan dittugu eta hirugarren baten benetako nortasuna jakin dogu. Hona datu barrixok: **erdiko illarako lehenengua ezkerretik, otzariakin daguena, Doroteo Kortabarria Isasmendi da, San Juan kaleko Gorodonekua; aurrekuaren ondokua, buruan zapixa dakona, Felipe Aberasturi Azkoitia da, Kale Zaharreko Zezpalekua, gerraostian Guatemalara fan zana; eta illara bereko laugarrena, bi bihatz bendauta dakona, Agustin Egaña Calles dogu, Kale Barriko Calles tarrena.** Milla esker informaziñuagatik Ana Mari Kortabarria, Maria Jesus Aberasturi, Nati Egaña eta Glori Irizarreri.